



ABALTZISKETA

ABALTZISKETAKO UDALEKO GIZARTE LANGILE LANPOSTUA EGONKORTZEKO EPAI MAHAIAREN BEHIN BEHINEKO BALORAZIOA

Abaltzisketan , 2023eko apirilaren 24ean,

Bildurik ,

Iñaki Eskisabel Zurututza Jauna , lehendakaria ,

Izaro Gurrutxaga Auzmendi Andrea, epai mahaikidea

Jon Karrera Jauregi Jauna, epai mahaikidea

Martin Iparraguirre Mujika Jauna, epai mahaikidea

Idazkaria:

Nekane Lopetedi Etxeberria, Abaltzisketako udaleko idazkari kontuhartzailea .

Kontutan hartuaz :

Lehena.-2022ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran, 2022ko enplegua publiko eskaintzea egitea onartu zen, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera eta 2022ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen eta Estaduko Aldizkari Ofizialean, 2023ko otsailaren 15ean.

Bigarren.-Hautaketa prozesu horretan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda eta Epaimahai Kalifikatzailearen osaera onartu zen eta 2023eko martxoaren 31eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen .

Hirugarrena.-Alegazioak aurkezteko epea iragan ondoren , eta alegaziorik ez da jaso .

Laugarrena.-Epaimahaiak , gizarte langile lanpostua egonkortzeko eskatzen ziren baldintzak hauek zirela :

Baldintza orokorrak : Derrigorrezko gizarte langile titulua izatea eta 3.hizkuntz eskakizuna beteta izatea .



ABALTZISKETA

Baldintza espezifikoak :

- Administrazioak esperientzia gizarte langile lanetan 0,33 puntu hileko .
- Abaltzisketako udalean gizarte langile lana egin izana 0,11 puntu hileko .
- Gizarte eta hezkuntzako 80 orduko ikastaroa izatea 7 puntu .
- Emakumeen aurkako indarkeria 85 ordukoa gutxieenz izatea 8 puntu .
- Gidatzeko baimena izatea 5 puntu

Guzti hau kontutan hartuta , epai mahaikidekek **ERABAKI DUTE** :

LEHENA .-Epai mahaikideek , aurkeztutako merituen gain begiratu eta aztertu ondoren , erantsitako agirian ikusten den bezala , hautagai bakoitzari bere puntuazioa ematea.

BIGARRENA.-Epai mahaiak emandako behin behineko puntuazioa , Abaltzisketako udaleko web orrialdean argitara emango da eta hamar lan egunetan puntuazioa aztertzeko aukera izango da , eta dagokion erreklamazioa aurkezteko , hala bada .

HIRUGARRENA.-Denboraldi honetan alegaziorik aurkeztu ezean , behin behineko balorazioa behin betikotzat emango da eta Abaltzisketako alkateari, puntuazioaren arabera zerrenda ordenatuta aurkeztuko zaio .

Eta besterik ezean , bilera amaitutza ematen da .

Lehendakariak

Idazkariak